

Goierriarra

283. zenbakia 2005eko ekainak 17

HELADOS IBÁÑEZ

HIRU BELAUNALDI
IZOZKIGINTZAN



ANTZIZAR
KIROLDEGIKO UDALAK

JMA
05

www.antzizar.net
tel. 943 887900

publiadk

ANTZIZAR KIROLDEGIKO
UDA 2005 KANPAINA

Etzara lehor geratuko!

Aurten ekainaren 15etik
aurrera Antzizar
Kiroldetiko bazkideek
ARISTRAIN KIROLGUNEKO
IGERILEKUA erabilgarri.





BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



BEROGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.F.S. 32/04

BERTSOTAN

Eskolarteko txapelketari



Ainhoa Mujika

Duela mende laurdena ginen
goxo-goxo iratzarri
ta genituen gazte guztiak
guganaino ekarri
horren trukean zuk maitasuna
diguzu guri ekarri
gero ta gazte gehiago dator
ezin zara triste jarri
ea egoten garen batera
final handietan sarri (bir)

Eskolarteko txapelketa nik
maitatzen zaitut biziki
ekainak bian bete genitun
hogeita bost urte txiki
iaz txapela lortu genuen
aurten bihurtu da biki
zure fruituak jaso ditugu
lasai, poliki-poliki
eskerrik asko, bejondeizula
muxu handi bat eztiki (bir)

Doinua: Mutil koxkor bat

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN



Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424
647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Jon Ordoñez

4. Ingurugiro txokoa: Gure naturan,
gaur

4. Errezeta: Bainilazko krema errea
Aholkua: Ahoko higieena

8. Kate motzean: Sara Cozar

10. Erreportajea: Goierritarra

12. Elkarrizketa: Ibañez izozkiak

16. Elkarrizketa: Aida Risso
paraguaiarrari

21. Garai batean...: Lutxi Zaldúa

22. Non zer?

24. Debaldeko iragarkiak

30. Argazki zaharra



Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jon Ordoñez

*Futbola nagusi
da Hego Euskal
Herrian eta
beste kirol asko
itzalean utzi
ditu, besteak
beste, pilota,
txirrindularitza
errugbia eta
saskibaloia.*

Ingalaterra, futbolaren iragana eta etorkizuna

Pako Aiestaran beasaindarra herrian egon zen orain dela bi aste Liverpool futbol taldean bizi izan duen esperientzia kontatzen, Beasain Kirol Elkartek antolatutako mahai inguru batean. Bera entrenatzailearen laguntzailea da, eta maiztzean Europako Kopa irabazi zuten. Baina kirol arrakastaz gain, futbolar Ingalaterran dituen beste ezaugarri asko aipatu zituen. Orain dela urtebete Jandro jokalaria ordiziarak, Ingalaterratik itzuli zenean, esandakoa berretsi zuen Aiestaranek: futbola han beste gauza bat da, jendea bere herriko edo auzoko futbol taldekoa da, eta liga apaletan jokatzen badu ere, kalean eta futbol zelaian babes zabala du.

Futbolaren helburu sozialaz mintzatu zen Aiestaran. Gure futbol taldeen helburua zein izan behar duen bota zuen mahai gainera, mailaz igotzea edo gazteei jokatzeo aukera bat ematea eta haztea. Futbola asko aldatu da azken hogeitau urteetan. Lehen, futbol partida bat ikusi nahi zuenak herriko futbol zelaia joan behar zuen. Futbola aro berri batean sartu da orain, ordea, eta gaur egun asteburu batean gutxienez hamasei partida eskaintzen ditu telebistak: Espainiako bi liga nagusikoak, Italiakoak, Ingalaterrakoak, eta baita Argentinakoak ere. Asteazken zehar jokatzen diren nazioarteko txapelketetakoak gehitu behar zaizkie horiei.

Lehiakortasuna handia da, beraz. Futbola ikuskizun mediatiko egin du eskaintza zabal horrek, baina aldi berean hainbat futbol zelaian hustutzea ekarri du. Orain dela hogeitau urte, Realak Atotxan jokatzen zituen futbol partida guztiak ikusten zituzten goierritarak ez ziren asko izango. Gaur egun, ordea, etxean jokatzen direnak

eta kanpoan jokatzen direnak igandero ditugu gure herrietako tabernetako telebistetan.

Futbola nagusi da Hego Euskal Herrian, eta hemengoak diren eta ez diren beste kirol asko utzi ditu itzalean, besteak beste, pilota, txirrindularitza, errugbia eta saskibaloia. Azken urteetan, ordea, telebistetan eskaintzen den futbola herri mailakoa ere jaten hasi da. Eta horrek hausnarketa bat behartu behar du. Munduko jokalaria onenak etxera ekarrita, zein izan behar du gure herrietako futbol taldeen etorkizuna?

Zoritzarrez, ziurrenik hurrengo urteetan handitu egingo da futbol profesionaleta eta amateurraren arteko aldea. Igoerarik eta jaitsierarik gabeko ligak sortzearen ideia airean dute jada talde handiek. Horrekin desagertu egingo da gaur egun liga handiak eta txikiak lotzen dituen katea. Auskalo zer izango den futbola beste hogeitau urte barru, baina garbi dago zentzurik ez dutela izango herriko jokalaria eta zaleak biltzen ez dituzten herri mailako futbol taldeek. Ezin dute talde handien ispilu izaten saiatu. Euren etorkizuna aurkitu behar dute. Zer egin, adibidea Ingalaterran dago. Maila batean edo beste batean jokatzen, oinarrian klub bakoitzak bere izaera eduki behar du, bai herriko gazteei futboleantzeko eta kirola egiteko aukera ematen dielako, edo bai herritarren babesaduelako.

Victor Argiñano Beasain futbol taldeko jokalaria ohia Pako Aiestaranen aldamenean izan zen orain bi asteko mahai inguruan. "Jokatzea gustatzen zaiolako jokatzen behar du futbolaria. Gustatzen ez zaion unean hobe du uztea", esan zuen.

Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
802 ZUKI KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

MUJIKA 19

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"

GOKINDEGA GARIONA

K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

Gure naturan, gaur

Jada udaberri betean hegazti eta batik bat txori askoren kanta hotsa han-hemenka entzuten da, nor beraren belarriak bereizi ezin dituela kaosa bailitza. Kontua, txori espezie bakoitzak berezko dituen kantuak eza-gutzea da, isiltasuna egin eta adi... melodiatxoari jarraitu. Horretaz gain, jakin, hegazti bakoitzaren betiko kantuetatik, nahasian besteen kantuekin batera ematen den hori, udaberriaren, gortearekin lotua dagoela, erreklamoarekin alegia, ohikotik kanpo izaten diren kantu hotsak. Hegaztiekin ezarritu eta energiari gehien bikotea topatzean egiten dute, harremanetan jartzea helburu bakarra bailitza. Horretarako nor baino nor ozenago aritzen dira, lurraldetasuna edo "territorialitatea" adierazten dutenak berriz, egun osoa beren mugak markatzen ematen dute, kantu bitartez bazterrik bazter, edo enborrean mokoka danborra lez. Beste batzuk aldiz, ahazien hainbat modelo eginez ematen dute denbora, bikotearen etxea izango denaren aurre-rapen modura, abilezi eta gaitasuna adieraziz, besteak beste.

Landaretza

Paisaiari dagokionez, jada zuhaitz eta arboletako loraldien amaierak hosto berde biziari eman dio paso, eguzkiak bete betean ematen duenean biziki erakar-garri egiten ditu hauek, ez ohizko ametsezko giro bat sortuaz. Momentu berean belardi gehienetako txikori landareak atzera egin du, beren bola txuri eta perfektuak ortzia adieraziz, hegan doazen milaka hazi non

nahi barreiatuz amaitzen da. Alderik alde betetzen zuen mantu horiak ere paso eman dio hirusta zuri eta bioletari, belar luze eta hosto estuei (festuka, raigrasa, olkoa, bromoa, daktiloa...) haizearen baitan, luzatzen, garatzen joan ala, balantza dantzan. Lurretik hasi eta gorako bidean inguruak berde tonalitate desberdin eta anitzak hartuz kolore berdeak dituen gama aberatseztz jabearazten da behatzailea. Lurrean han-hemenka badira ala ere lore berantiarrik, koloreez oihaltzen berdea alaitzen dutenak, asun eta menda belarren loreak, narziso batzuk... kolore horiek, gorri bizi eta urdinez zipriztintzen dituzte bazterrak, intsektu askoren begi konposatuaren estimulu eta gozamenerako erakartasun gai bilakatu.

Erleak, liztorrak...

Hor dabilta ezti erleak, lur erlastarrak, liztor gorri eta germaniarrak, hegaz, eta lurrean hainbat inurri txondor. Euriaren ostean berriz, lurrean geratutako ur putzuak igel eta zapoen metamorfosi prozesuan hain ezagunak zaizkigun zapaburu txalburuen presentziak ura bizi iturri dela dakarkigu gogora, eskalarik txikienean ere mundu bat



zabaltzen denaren adierazle.

Goialdean berriz, gaztainondoen loreak malko luze horiak zintzilika adierazten ditu. Ar luze bihurrituak diruditen hauek, hegaztiak erakarri nahi dituzte, hegan gerturatzean, eta adarrean jartzean, beren pisuaz loreen polenak astindu eta haizearekin bat barreiatzen direlarik. Azpialdean, hostazuri eta otsalazarren fruituak gorritze prozesuan daude jada, heltze prozesuan... karaskiloa edo txorbeltza berriz, fruitu bakan eta txikiagoekin gorritik beltzera doazen tonalitateak hartuz doa, gero udazkenean fruitu jaleen horniketarako.

Eta horrela, milaka eta milaka aldaketa gure lurren egunerokotasunean prozesuak martxan darrai kosta ala kosta, gizona bane.

Manex Aranburu

Lurrean geratutako ur putzuak igel eta zapoen metamorfosi prozesuan hain ezagunak zaizkigun zapaburuaren presentziak ura bizi iturri dela dakarkigu gogora.

JAKIN BEHARREKOAK

"Traunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak"

Eusko Jaurlaritza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Udaberriarekin batera, herrietako jaiak hasten dira eta jai horiek ingurumena errespetatuz ospatzeko, hainbat gomendio jasotzen dira argitalpen honetan.

Oiangu publiko eta bizi-rik Plataforma.

Antolakuntza zein lege aholkularitzako gastuei aurre egiteko, kontu korrontea zabaldu du Plataformak Gipuzkoako Kutxan: 2101 0073 10 001159496.7. Informazio gehiago eskuratzeko: oianguplataforma@yahoo.es.

Eroskiko produktuak transgenikorik gabe.

Greenpeacek Eroskiren idatzizko agiria jaso du, Consumer produktuak transgenikorik gabekoak direla ziurtatuz. Erakunde ekologista, elikadura sektoreko enpresekin harremanetan dago, transgenikoen inguruko kontsultak eta azterketak eginez, transgenikoen gida gaurkutzeko.

Petrolio eskaria gutxitzeko neurriak.

Nazioarteko Energia Agentziak (IEA) maiatzan deituko ditu herrialde garatuenetako agintariak, eta petrolio eskaria gutxitzeko neurriak azalduko dizkie: ibilgailuen abiadura %25 murrizteko, txandakako zirkulazioa ezartzeko eta beteta doazen ibilgailuei askotariko abantailak eskaintzeko, garraio publikoak doan izatea, etxetik lan egiteko sistemak abian jartzea, eta erakunde publikoetako langileek asteleheneetik ostegunera bakarrik lan egitea, ordu gehiagoz. Ekonomia eta ingurumenaren mesedetan izango da.

Aztarna ekologikoa

Aste Berdean (maiatzak 30-ekainak 6 artean) Goierriko herrietan loretxo hori batzuk ikusiko zenituzten, Goierriko hainbat pertsona ezagunen izenekin. Pertsona ezagun hauen izenen aldamenean, planeta kopuru bat agertzen zen loretxoaren petaloetan. Baina zer dira planeta hauek? Zer esan nahi dute? Zergatik dago "eta zuk?" galdera hori loretxoaren erdian?

Planeta hauek goierritar ezagun hauek daukaten aztarna ekologikoa adierazten dute. Aztarna ekologikoa gure kontsumo-eredua aztertzen duen adierazle edo indikadore bat da, munduko biztanle guztiek gure kontsumo eredu berdina izanez gero, zenbat planeta beharko genituzkeen esaten diguna.

EAEko aztarna ekologikoa batzbestekoa da. Mundu guztiak egunero auttoa guk bezela erabiliko balu; guk bezainbeste kontsumituko balu, guk bezainbeste hondakin sortuko balu, aire girotu/berogailua guk bezela erabiliko balu... 2,5 planeta beharko genituzke gure beharrianak asetzeko.

Baina planeta bakarrean bizi gara denok, eta beraz, munduan planeta bat baino gutxiagoko aztarna ekologi-




koa duten herrialdeak badi-rela ondorioztatzen dugu. Bizi-mailan munduan desoreka handiak ematen direla erakusten digu honek.

Helburua, gure kontsumo ereduaren inguruan hausnartu eta gure aztarna ekologikoa jaitsiz ingurumenarekiko errespetatua-

Zenbait herrialdetako aztarnak:

Estatu Batuak	5.1
Alemania	2.5
EAE	2.5
Espainia	2.5
Suitza	2.2
Mozambique	0.2



goa den eta sozialki justua den mundu bat lortzeko zer egin genezakeen pentsaraztea izan da.

Eta zuk? Zenbateko Aztarna ekologikoa daukazu? Zure aztarna ekologikoa zenbatekoa den jakin nahi baduzu, udaletxe, kultur-etxe, taberna, denda, etab. -etan banatu diren diptikoe-tako galdetegia erabil dezakezu. Bestela jarri Goiekiko Agenda 21eko teknikariek harremanetan galdetegia eskuratu ahal izateko. (Telf. 943161537, agenda21.goieki@goierri.org).


Kanpaina honetan lagundu diguten Izaro Iraeta, Ekaitz Goikoetxea, Patxi Zubizarreta, Jose Ramon Agirre "Marron" eta Joxe Felipe Auzmendi eskerrak eman nahi genizkieke izan duten prestutasun eta borondateagatik. Eskerrik asko!!!

Bestalde goierritar guztiok ordaindu ditugun Beasain, Ordizia eta Ormaizte-giko loretxoak desagertarazi dituztela jakinarazi nahi dizuegu.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✗ Tximini eta ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak

SUKALDEAN

Bainilazko krema errea



Xabier Martinez
Martinez jatetxea
Ordizia

Osagaiak (6 lagunentzat):

- 15 arrautza gorringo freskoak eta baserrikoak
- 1 litro nata freskoa
- 1/4 litro esne
- 200 gramo azukre
- Bainila adar bat

Lehenengo eta behin, esnea egosi behar da nata freskoarekin nahastuta. Egosi ondoren, ordu erdi batez utzi atseden hartzen, gutxi gora-behera.

Bitartean, azukrea arrautza gorringoekin nahastu. Horren ondoren, esnea eta nataren ontzia hartu eta gorringoei gainetik bota.

Horretaz gain, bainila

adartxoaren barrukaldea arraspatu eta aurretik prestatutako nahasketara bota.

Nahasketa hori katilutan jarri behar da eta labean sartu behar da 45 minutuz eta 90 gradutan.

Postrea aurkezteko, behin krema egosi ondoren, gainazala erre daiteke azukrearekin eta burdin gorriarekin.

Ahoko higieena

Telebistako, aldizkarietako eta baita zentru komertzialetako publizitate bonbardaketara ohituta gaude. Publizitate horietan, ahoa garbitzeko likidorik onenak dituztela saltzen dute; baita, hortzak zuritzeko pastak ere. Horien arabera irribarre zuria lortzen da eta honakoa esatea falta zaie bakarrik: "Erosi, konparatu eta zerbait hobea aurkitzen baduzu aldatu".

Zergatik azaltzen dut hau guztia? Izan ere, ahoko higieena on bat mantentzeko, nahikoa da hortzetako eskuila on bat edukitzea. Eskuila horren zurdak ongi edukitzea nahikoa da, hau

da, puntak ireki gabe egotea.

Egia da, badirela hortzetako dentrifiko batzuk dentistek gomendatzen dituztenak. Baina horiek badute beren zeregina. Hala nola, dentrifiko batzuk odoltzen diren hortzoietarako eginak dira, edota sensibilitatearentzako. Baina, hortzak benetan garbitzen dituenak garbitzeko ekingia da. Horrela, hortzak garbitzean bakteriak dituzten plakak kentzen dira. Fluorra daraman hortzetako pasta bat nahikoa da hortzak garbi edukitzeko.

Anuntziatzen dituzten hortzetako pasta horiek,

hortzak zuritzen dituztela esaten dutenak, errealitatean mantxak kentzen dituzte (tabakoarenak, kafearenak...). Hortzak garbiago geldituko dira baina zuriago ez. Halaber, hortzen kolorea ilunagoa duten pertsonen pasta horiekin garbitzean kolore berdina izaten jarraituko dute.

Baina, pasta horiek beste zerbait egiten dute: hortzen esmaltea arraspatu. Izan ere, mantxak kentzeko urratzaileen nibel altua izaten dute eta ondorioz esmalteari kalte egiten diote. Hori dela eta, ez da gomendagarria pasta horiek erabiltzea.

AHOLKUA



Silvia Miras
Odontologoa



ondoeta


**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

NOL 200 600 895 144/100



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



“Euskal Herrian lana dudan bitartean ez dut kanpora irteteko asmorik”

Une honetan zertan ari zara lanean?

Une honetan *Las mujeres de verdad tienen curvas* antzezlanarekin jarraitzen dut, Ados Teatro konpainiarekin. Orain-txe Bartzelonan nago, bi hilabete egin ditugu hemen Poliorama antzokian. Ekainean, Donostiako Printzipalera joango gara bigarren aldiz, eta gero udara osoan espainiar Estatu guztitik ibiliko gara funtzioak egiten.

Zer nahiago duzu telebista edo antzerkia?

Ohiko galdera eta erantzuteko zaila. Niri biak asko gustatzen zaizkit, zeharo ezberdinak dira. Oinarria berdina da, antzezte, baina egiteko era ez. Aktore batentzat (niretzat behintzat) hoberena biak elkarrekin egitea da.

Zerk eskatzen du dedikazio gehiago?

Agian antzerkiak. Ondo funtzionatzen duen obra batekin baldin bazaude, oso zaila da beste gauza batzuk egin ahal izatea. Hilabete batean ez dira funtzio asko egiten, baina pentsa adibidez, Andaluziara joan behar baldin baduzu, gutxienez 3 egun behar dituzula funtzio bakar bat egiteko.

Telebistan aritua zara. Goenkale izan zenuen hasiera.

Zer eman dizu telesailak?

Goenkalek? Dena. Mundu honetan egoteko aukera, karrera baten aurrean lan egiten irakatsi dit, jende pilo ezagutzeko aukera profesionalki eta pertsonalki. Goenkale nire eskola izan da, eta beti egongo naiz eskertuta.

‘Ero eta Bero’ programa aldaketa handia izan al da?

Bai, izugarria. Nik ez nuen nire burua horrelako saio bat egiten imajinatzen baina gozagarria izan da, izugarritzko giro ona zegoen eta Jon Plazaola oso jatorra da, oso ondo pasatzen genuen.

Posible al da aktore lanetatik bizitzea Euskal Herrian?

Printzipioz aktore lanetik bizitzea zaila de edonon, baita Euskal Herrian ere. Euskal Herriko saioak nahiko mugatuak dira, baina behin sartuz gero, posible da gauzak ateratzea.

Lana euskaraz ala gaztelaraz nahiago?

Gehienetan euskaraz egin dut. Orain kubatarrez ari naiz eta gustura gainera. Garrantzitsua lana gustukoa izatea da.

Kanpora ateratzeko asmorik?

Momentuz ez, Euskal Herrian lana dudan bitartean ez behintzat. Obra honekin asko mugitzen ari naiz, beti alde batetik bestera gabiltza, eta konturatzen naiz Euskal Herria faltan botatzen dudala. Baina nork daki...

Gustuko antzezlan bat:

Las mujeres de verdad tienen curvas eta ez dut kobratzen hau esateagatik,e?

Gustuko pelikula bat:

No sos vos, soy yo Argentinako filma.

Zer da Ordizia zuretzat?

Nire herria, nire bizitzaren sustraia, nire familia, nire lagun minak, festa, lasaitasuna, etxea azken finean. Ordizia beti izango da nire benetako etxea.

Oporretarako plan bat edo leku bat:

Lehenengo urtean probatu nuen Cadiz. Izugarritzko hondartzak ditu, herri txuri txiki pilo bat, giro ezin hobea eta hainbeste gustatzen zaidan eguzkia momentu oro.

Amets bat?

Lasaitasuna, zoriona, osasuna, maitasuna, bakea, disfrutaztea... Bizi on bat izatea inongo pretentsiorik gabe, ondo bizitzea.

JoXi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

Arraiak parrilan

943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



The background is a collage of various images. At the top left, there's a red banner with the word 'Goierr' in white. Below it, a man in a white shirt is shown from the chest up, looking towards the camera. To his right, there's a newspaper clipping with the word 'Goierr' in large blue letters and 'Zorionak' in smaller orange letters below it. At the bottom right, there's a photograph of a crowd of people, some wearing blue hats, and a close-up of a person's face in the foreground.

Goierritarra

**Oztopoak oztopo,
aurrera goaz!**

Goiekik aurten ez du GOIERRITARRA diruz laguntzeko asmorik

Laguntzaileei urteko kuota igo beharrean izango gara

Itxura guztien arabera, aurten GOIERRITARRAK ez du Goierriko udalen dirulaguntzarik jasoko. Erabaki hori hartu du Goiekik eta horrela jakinarazi die Goierriko udalei. Nahiz eta gero udal bakoitzaren erabakia den laguntza ematea edo ez ematea.

Goiekiren ustez, euskarazko prentsak urteko biztanleko bi euroko laguntzarekin nahikoa du. Bi proiekturen eskaera jaso dutenez, GOIERRITARRA aldizkariari honako baldintza jarri dio, mehatxua eginez: Hitza eta GOIERRITARRA "proiektu bateratua" bihurtzen ez badira, 2 euroko laguntza Hitzari emango zaio, GOIERRITARRA dirulaguntzarik gabe utziz. Hau da, GOIERRITARRA desagertzera bultzatuz.

"Proiektu bateratua" zeri deitzen dioten ez dute argi-



tu Goiekikoe. Baina, argi dago, GOIERRITARRA aldizkaria eta Hitza elkarren osagarri diren proiektuak direla. Bi proiektuak bateratzeko eta egokitzeko urtebete baino gehiagoko hausnarketan ari gara. Elkarrekin, batera lan eginez, gaur egun posible egin den errealitate be-

rria daukagu Goierriin. Horrek ez du esan nahi hausnarketarekin amaitu denik, etengabeko hausnarketan aritzea baita gure egiteko bat, beti ere, helburua garbi edukita: euskaraz informatu eta Goierriari eta goierritarrei zerbitzua eskaini.

Aurrerapauso garrantzitsua

Iaz GOIERRITARRA aldizkarietik, Goierriko Hitza egunkaria bultzatuz, apustu garrantzitsua egin genuen gure eskualdean euskarazko prentsa indartzeko. Egunerokoa bultzatuz, hamabostekariak

zituen hutsuneak betetzea lortu dugu.

GOIERRITARRA, Hitza kaleratu aurretik, herrietako kronikek eta garaian garaiko informazioak betetzen zuen. Denera ezin iritsi eta hainbat gai interesgarri nahiz elkarrizketa emankor kanpoan utzi edo nahi baino laburrago kaleratu behar izaten zen. Hitza kaleratu genuenetik, eguneroko informazioaren zurrunbilotik kanpo dauden hainbat gai modu lasaigoan kaleratzeko aukera dugu hamabostekarian. Horrekin batera, atal berriak ere sortu ditugu, ba-

Euskara eta euskarazko prentsa indarturik atera dira.

ZUZENKI

AHOLKULARITZA




Abokatuak

Enpresen asesoria eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Hirigoi, 7 LAZKAO



www.zuzenki.net

GoierriTarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **GoierriTarra, Urbialde plaza, 7 behe, Beasain**

Goiekik hartutako erabakiarekin, euskal prentsak behar duen diruaren erdia bakarrik eskaini du. Ezer gutxi euskal prentsak eman duen jauzia kontuan hartuz.

tez ere, adinekoak, gazteak eta etorkinak kontuan edukiz.

Azken batean, Hitza eta GOIERRITARRA osagarriak eta bateratuak dira, informazioari dagokionean, kazetaritza mota ezberdina landuz, Goierriko eta goierritarren berriak zabalduz.

Bi produktu hauekin, GOIERRITARRA 1989an sortu zenetik, bere zereginean izan dituen bi ardatzak sendoago landu ahal izan ditu: alde batetik, informazioa euskara hutsez emanez, euskara indartzea, eta goierritarren artean euskaraz irakurtzeko ohitura zabaltzea; eta bestetik, hurbileko informazioa zabalduz, goierritarrei zerbitzua eskaini eta eskualde izaera sendotzea.

Apustu honetatik euskara eta euskarazko prentsa indarturik atera dira. Beraz, bide zuzenean ari gara eta bide beretik lanean jarraitzeko beharra ikusten dugu. Baina, euskararen aldeko lana, dohainik denean are gehiago, arazo bat izan ohi du: dirua.

Diru-laguntza beharra

Diru eske ibiltzea inoren gustukoa ez bada ere, oraindik ere euskara hutsezko produktuek nekez egin dezakete aurrera instituzioen laguntzarik gabe. GOIERRITARRA ere ez da salbuespena. Goierriko 7.000 etxetara hamabostero iritsi

ahal izateko Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Goierriko Udalen diru-laguntza izan du GOIERRITARRAK. Ez zen kale-ratu orduko erraz lortutako diru-laguntza izan, hainbat urtetako lana, bilerak eta eztabaidak beharrezkoak izan ziren. Azken urteetan udal gehienek biztanleko euro bateko laguntza ematen zien GOIERRITARRARI urtean.

Aurten, euskarazko prentsak eman duen jauzia dela eta, diru premia handiagoa da. GOIERRITARRAK aldizkari osoa koloretan eta urtean zehar hainbat gehigarri kaleratu arren urtero bezala euro bateko laguntza eskatu du. Hitzak, berriz, egunero-egunero goierritarrok etxean jaso ahal izateko biztanleko 3 euroko laguntza eskatu du.

Goiekik, hartutako erabakiarekin, euskal prentsak behar duen diruaren erdia bakarrik eskaini du. Eta gainera iaz biztanleko euro bat ematen zutela kontutan hartuz, euro bakarreko igoera proposatu du, ezer gutxi euskal prentsak eman duen jauzia kontuan hartuz.

Hainbat udalek sinaturik duten euskara biziberritzeko planetan bertako euskarazko prentsaren garrantzia azpimarratzen da. Paperean sinatzen denak ekintzekin, diru-laguntzekin, osatu ezean ezer gutxi-rako balio du.



Urteko kuota 15 eurora igo beharra

Duela 3 urte Correosek bere tarifak bikoiztu zituela eta GOIERRITARRAREN laguntzaile kanpaina jarri genuen martxan. Aldizkariak biziraun ahal izateko, urtean borondatezko 12 euroko kuota eskatu genien harpideei. Erantzun bikaina jaso genuen harpideengandik. Laguntza horri esker posible izan da hamabostero aldizkaria kale-ratzen jarraitzea, bide batez produktua bera hobetuz.

Orain arte udaletatik jaso izan dugun 37.000 euro inguru ez dugu jasoko aurten. Hori dela eta, berriro ere gure harpideengana jo beharrean gara. Orain arte kobratu dugun urteko 12 euroko kuota 15era igotzea erabaki dugu. 2002. urtean Correosek Goierritarraren banaketa kostua bikoiztu egin bazuen ere, gaur egunera arteko igoera pixkanakakoa izan da. Hau da, etengabe goraka. Beraz, urteko euro bakarreko igoera eginda, aurten 15 euro kobratzea erabaki da arazo honi aurre egiteko.

Igoera horrekin ez dugu udalek utzitako hutsunea betetzen, ezta gutxiago ere. Baina, ez dugu gure laguntzaileak behar baino gehiago estutzeko inongo asmorik. Gainera, ez da bidezkoa udalen borondate eza GOIERRITARRAREN laguntzaileok ordaintzea.

Uztailaren hasieran kobratuko da

Uztailaren hasieran kontu korrontetik 15 euro kobratuko zaizue laguntzaileoi. Norbait honekin ados ez badago edo hainbeste ordaintzeko prest ez badago GOIERRITARRAREKIN harremanetan jarri eta konponduko genuke.

Ibañez izozkiak

Belaunaldi askoren lana

Ezagunak dira oso Ibañez izozkiak gure eskualdean. Urteak eta urteak dira izozkiak egiten eta saltzen hasi zirela. Egun izozkiak egiten dituen kontuan izanda, hiru belaunaldi aritu dira izozkiak egiten:

aitona Gumersindo, aita Maximo eta semea Fernando. Maximo eta Fernadorekin solasean aritu gara baina aitzak kontu gehiago zituen aipatzeko. Izan ere, asko aldatu da garai zaharretan lan egiteko modua eta egungoa.

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

ainarretxeberria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza, 4 BEASAIN

Zenbat urte dira jada izozkiekin lanean hasi zirela?

Ba dagoeneko 62 urte dira ni izozkiekin lanean hasi nintzela. Ni gaztea nintzela hasi nintzen izozkiak egiten eta saltzen, zehazki, 14 urte nituela. Beraz, urte guzti hauetan gauza asko ikaste-ko aukera izan dut.

Nolaz eta zergatik hasi zinen izozkiekin lanean garai hartan?

Nire aita izozkigilea zen eta horregatik hasi nintzen. Pentsatu, nire aita 1918an etorri zen Ordiziara eta bi edo hiru urtetan hemen egon zen bizitzen. Ondoren, soldaduskara joan zen eta handik ezkontuta etorri zen. Orduz geroztik, urteetan zehar hemen egon zen bere izozkiekin lanean. Eta noski, berak erakutsi zidan izozkiaren munduari buruzko guztia.

Izozkigile guztiak Santanderko zonalde batetik jaiotzen ziren eta nire aita ere handik etorritakoa zen.

Garai hartan zaila izango zen izozkiak egitea ezta?

Orduan oso zaila zen izozkiak egitea hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, garai hartan ez zegoen hozkailurik. Baina Ordizian izotza egiten zuen lantegi bat bazegoen. Hala ere, orduan jendeak izozkia izotza zela pentsatzen zuen eta izotza ordea, izozkia mantentzeko erabiltzen zen. Bigarren datu garrantzitsua tenperatura-rena izaten zen. Izan ere, izozkia mantentzeko jendeak lehen ez zekien eta orain ere ez daki izozkia 14 gradu zero azpitan eduki behar dela.

Eta orduan nola lortzen zenuten tenperatura hori?

Gatzari esker lortzen genuen zero azpitiko graduak izatea. Izotzak zero gradu dauzka, eta gatzaren kantidadarekin lortzen genuen 14 gradu azpitik mantentzea.



“Kalitate oneko produktuekin egiten ditugu izozkiak eta hori nabaritu egiten da”

Egun salmenta nolakoa da?

Gaurko hurrek publizitatea dela eta, kukurutxo-ko izozkiak baino nahiago izaten dituzte beste batzuk. Saltzen da baina ez izugarri. Jendeak asko eramaten du etxerako, bazkarietarako eta horrelako gauza berezi-erako. Jatetxeek ere eramaten dute gure izozkia postre bezala zerbitzatzeko.

Hala ere, gure ustez, jende asko ez da konturatzen kalitateaz. Guk izozkia beti produktu naturalekin egin izan dugu, baserriko esnearekin, limoiarekin, marrubiekin... Ez dugu hautsik eta horrelakorik erabiltzen eta hori dela eta, izozkia bera garestiagoa ateratzen da. Baina ez dago konparaziorik horrelako izozki bat eta beste baten artean.

Izozkia egiterako orduan zerbait aldatu al da lehendik gaur egunera?

Ez, guretzat ez da aldatu. Egia da, agian produktua zerbait aldatzen dela baina gaitz nontzean ez. Izan ere, orain izozkiak duela 30 urteko makina berdinarekin egiten ditugu. Beraz, ez da asko aldatu. Hala ere, laster makina berri bat erosteko asmoa daukagu. Baina gure ustez, makina berri horrekin izoki onak aterako dira baina ez orain egiten ditugunak bezain onak.

Betiko zaporeak al dira gehien saltzen direnak?

Bai, normalean bai. Urte batean edo bestean zapore berriren bat ateraz gero, berria dela eta jendeak probatzen du, baina azkenean betiko izozkietara jotzen dute. Egun jogurt izozkia da denetan erregea, bainila-izozkiari irabaztea lortu du.

Zein da zuen famaren ezaugarria?

Kalitatea. Kalitate honeko produktuekin egiten ditugu izozkiak eta hori jendeak nabaritu egiten du. Nahiz eta egun ez dioten asko begiratzen horri, oraindik badago jendea horri garrantzia ematen diona. Horretaz gain, izozkia egiteko eskua ere eduki behar da, denean bezala.

Behin edo behin, festetan eta horrelakoetan, esnea bukatu izan zaigu eta botila-koarekin egin izan dugu pixka bat. Baina izozkia ez da behar bezala ateratzen. Gus-
tu ona edukitzen du baina ez da berdina, baserriko esne pasteurizatuarekin askoz ho-
bea ateratzen da.



Izozkien oinarria esnea eta azukrea dira

“Izozki guztien oinarria esnea eta azukrea dira. Gero bakoitzak zaporearen arabera, osagai ezberdinak izaten ditu. Hala nola, bainila-izozkiak arrautza eta bainila dauzka, limoizkoak limoi naturala, marrubizkoak murrubiak eta horrela gainerako zapore guztiekin. Gauza horiek guztiak sartu ondoren, produktu bat botatzen diogu izozkia pixka bat potolotzeko. Eta bukatzeko, hozkailuan sartzen da 20 gradu zero azpitik dituela eta horrela mantentzen da jateko atera arte”.

Zailtasunak handiak izango ziren ezta?

Bai, izan ere, tenperaturaz gain, baziren beste arazo batzuk. Guk baserriko esnearekin egin ditugu beti izozkiak eta garai hartan nork zeuzkan 40 litro esne? Oso baserri gutxik. Zaila zen esnea lortzea eta lortu eta galduz gero, ezin izaten genuen izozkirik egin egun horretan. Lehen ezin zen orain bezala dendara joan eta botila pilo bat esne erosi. Lehen izozkia egitea benetan garaipen bat zen.

Horretaz gain, garai hartan, bero handia egiten zuten zaila zen leku freskoak aurkitzea. Baserri askotan putzuak egoten ziren eta esnea jetzi ondoren marmitetan sartzen zuten eta putzuetan nahiko fresko mantentzea lortzen zen.

Bestalde, beste zailtasun

bat ere bazegoen. Izan ere, bainila-izozkiak arrautza behar du, eta garai hartan, ekainetik aurrera oiloak ez zuten arrautzarik jartzen. Beraz, epe horretan arrautza pilo bat hartu eta mantendu behar izaten genituen.

Arrautzak mantentzeko, zurezko ontzi batean jartzen genituen arrautzak eta gainetik kare bizi kapa batekin estaltzen genituen. Karearen gainean arrautzak jarri eta berriro ere kare biziz tapatzen genituen. Horri

esker, arrautza bi edo hiru hilabetez mantentzea lortzen genuen.

Herriz herri ibiltzen zinen izozkiak saltzen ezta?

Bai, nire aita zenarekin ibiltzen nintzen. Izozkia karrua hartu eta kilometroak egiten genituen herriz herri izozkiak saltzen. Goizean atera, eta Mutiloara edo beste edozein herritara joaten ginen oinez. Egund osoa bertan igaro eta ondoren berriro ere hona bueltatzen ginen.

Lehen hozkailurik ez zegoen eta ezta nahi adina esne ere, horregatik garaipen bat zen izozkiak egitea.

Makina bat urteren ondoren, moto bat erosi genuen. Motoa duela 50 urte erosi genuen, eta garai hartan 57.000 pezeta kosta zitzaigun. Pentsatu guretzako garai hartan hori guztia zenbat diru zen.

Zein herritan ibiltzen zinen?

Inguruko guztietan, orduan ez zegoen beste inor izozkiak egiten zituenik, nire aita 1924an hasi zen izozkiak egiten. Gero, beranduago, Mateo ibili zen izozkiak egiten baina horrek duela 15 edo 20 urte utzi zuen lan hori.

Eta izozkia nola eramaten zenuten herrietara?

Kortxoeko garrafa batzuk zeuden garai hartan eta barruan brea kapa bat edukitzen zuten.

Kortxoaren isolatzaileak laguntzen zuen izotza ez urtzen eta egun guztian mantentzen zuen. Urteak pasa ahala, hozkailuak atera zirenean eta dena beltza izateko zurira pasatu ginen.

Garai hartan aukera txikiagoa zegoen izozkitan?

Bai, orduan bainila-izozkia, limoizkoa, txokolatetza eta marrubizkoa ziren klasiak. Gainera, garai batean bainilazko izozkia zen gehien saltzen zena. Orain aldiz, jogurtarekin egindakoa da garailea.

Halere, egun guk hama-bi zapore ezberdinetako izozkiak egiten ditugu eta guretzat nahikoa da. Badakigu hiri handiagoetan zapore gehiago daudela, baina guri zapore berri gehiago egiteak ez digu merezi.

Lehen kiosko bat edukitzen zenuten. Ez al zaizu iruditzen kioskoak beste xarma bat zeukala?

Noski baietz. Pasealekuan ibiltzen zen jende asko pasatzen zen bertatik izozki bat erostera. Gainera, lehen, gazte gehiago ibiltzen ziren pergoletan. Kioskoa kokatuta zegoen lekua ere ona zen, eta jende asko erakar-



Gumerindo Ibañez Ordiziako zineman.



Gumerindo Ibañez



Ibañeztarren gurditxoak Ordizian.



Maria eta Mena Ibañez abizpak Ordiziako dendan.

Kioskoak beste xarma bat zeukan, gainera leku onean zegoen kokatuta eta jende asko igarotzen zen bertatik.

tzen zuen. Orain aldiz, jendeari agian gehiago kostatzen zaio hona bertaratzea.

Nire emazteak eta nik izardi ederrak egin ditugu kiosko horretan eta pilo bat saltzen genuen. Baina beste garai batzuk ziren. Lehen autorik ez zegoen eta jende gaztea herrian gelditzen zen. Orain aste-buruetan herrian ez da inor egoten eta abuztuan ere ez. Gainera, konturatzen bazara, herrian zeuden

kiosko guztiak desagertuta daude, baita egunkariak ere.

Neguk gogorrak izango ziren ezta?

Bai, baina neguan zinematant saltzen genituen izozkiak. Orain, kafetegia ere badugunez, negua ez da gogorra egiten.

Hala ere, guk garai hartan Ordiziako plazan ere saltzen genituen izozkiak. Eta gainera, Ordiziako eta Beasaingo zinemetan esku-

siba geneukan, izan ere, zinemant izozkiak saltzen genituen eta gu bakarrik egoten ginen bertan saltzen. Horretaz gain, lehen barkilloak eta kukurutxoak ere egiten genituen eta horiek ere asko saltzen ziren.

Egun egiten al dituzue?

Ez. Orain ez du merezi lan hori hartzeak. Egun barkilloa egitea ez da komertziala. Gaur egiten direnak onak dira.



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak

943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak

Filtroak, olioak, engrasea

Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran 943 18 72 57

Aida Risso Beasainen bizi den paraguaiarra:

“Bere hizkuntza daukan herrialde batera etortzeak poza eman dit”

Bi hilabete dira Aida Risso Beasainera bizitzera etorri zela. Paraguaiarra da bera eta arrazoi pertsonalak medio etorri zen hona. Oraingoz behintzat, oso gustura dago herrian. Hemen integraztea erraza egin zaio eta dagoeneko euskara ikasteko asmoa daukala agertu du.

Zuretzat hemen integraztea erraza izan al da?

Nik uste dut abantailarekin etorri nintzela, izan ere, iazko abuztuan hemen egon nintzen opor batzuk egiten eta jada banekien gutxi gora-behera nolakoa zen. Hala ere, nire bikotekidea bertakoa denez, bere familiak eta lagunak oso ondo hartu naute. Niretzat erraza izan da, baina, pentsatzen dut bakarrik datorren bati zaila egingo zaiola bertaratzea, ez baitu ez ingurua ez eta jendea ezagutzen.

Eta integrazioa horrelakoa izatea espero al zenuen, edo ezberdina?

Ez, ez nuen espero horrelakoa. Baina, egia esan ez neukan itxaropen handirik eginda badaezpada ere. Aldaketa handiak jasan behar ditudanean, saiatzen naiz gehiegi ez pentsatzen bestela gero desilusioak hartzen dira. Hala ere, bizi nuen egoera dela eta, pentsatzen nuen ona izango zela eta uste dut hori baino hobea izan dela.

Hemengo jendea zer iruditu zaizu? Horrelakoa espero al zenuen?

Iaz ere hemen egon nintzen, eta hasieran jendea

itxia da. Baina, nahiz eta ez dudan oraindik jende asko ezagutzen eta ezin dudan orokorki esan, jende zintzoa, jatorra eta solidarioa iruditzen zait. Orain arte nirekin behintzat oso ongi portatu dira.

Era berean, jendea oso kritikoa dela iruditzen zait eta memoria asko duela. Gure herrian arazo hori dago, jendea gertatutakoa ahaztu egiten zaiola eta horren aurrean ez du ezer egiten. Ez dugu erreakzionatzen. Hemen aldiz bai.

Horretaz gain, hemengo jendeak identitate senti-

mentu handia dauka eta nik uste hizkuntzari oso lotuta doala. Nire ustez, identitate horren zati handi bat hizkuntza da. Guk ere badakugu ama hizkuntza bat, guarani izenekoa eta hizkuntza indigena bat da. Hori dela eta, antzekotasun horrek poztu egiten nau. Bere hizkuntza daukan herrialde batera etortzeak poza ematen dit.

Bi kulturen artean ezberdintasun handia al dago?

Desberdinak dira. Gure herrian lasaia bizi gara, erakundeak ezberdin funtzionatzen dute. Hemen jendea

presaka ibiltzen da, badirudi denborak balio handia daukela. Biek arazoak ekar ditzakete: hemen galdetzen dute ea zergatik dabiltzan presaka; han aldiz, gauza asko daude eraikitze oraindik eta denbora asko galtzen da.

Eta hezkuntzari buruz?

Hango hezkuntza nahiko txarra da. Badirudi hezkuntza txarra ematen dutela ikasteari uzteko. Horrela, jendeak jakintza ez du handitzen eta gauzen aurrean ez du erreakzionatzen. Hori diktaduraren ondorioa da, jendeak ez du hezkuntzarik eta ez du jakintzarik gauzak aurrera eramateko.

Paraguaiei zertan egiten zenuen lan?

Paraguaiei dantzako antzerki talde batean egiten nuen lan. Talde hau proiektu baten ondorioa zen. Zorrigaitzik gabeko lurra izena du proiektuak eta kulturen arteko proiektu bat da. Izan ere, lan honen ideia nagusia honakoa da: Kanpotik, hau da, beste herrialde batzuetatik jendea hona etortzea taldera ikastera eta bertako gazteak, beste herrialde batzuetara joan ahal izatea.

Horretaz gain, ONG batean egiten nuen lan. Eta erakunde horretan kalean lan egiten zuten neskekin egiten genuen lan. Neska horiei gorputz-espresioaren klaseak ematen nizkien.

Nola definituko zenuke Paraguaiko bizitza?



Aidak Paraguaiei dantzako antzerki talde batean egiten zuen lan.

Latinoamerikako bizitza beti izan da zaila. Baina, orain, nik uste dut okerragoa dela dagoen krisi ekonomikoa handitzen joan delako. Gainera, espero ez zen gauza bat gertatu zen eta horrek ere bizitza zaildu egin zuen. Izan ere, ez dakit gogoan izango duzuen nola supermerkatu batek sua hartu zuen eta bertan 500 pertsona hil ziren. Hildako horiek gainera, nagusiaren arduragabekeriagatik hil ziren. Zeren, sua piztu zenean, inor or-

daindu gabe atera ez zedin nagusiak irteera atekak itxi zituen eta denak bertan hil ziren.

Bestalde, kasualitatea izan zen hainbeste jende egotea. Izan ere, Laguntasunaren egunaren bezpera zen, hilaren hasiera, eta herritarrak soldata kobratua zuten eta eguna ospatzeko erosketak egiten ari ziren. Eta nik uste dut horrek garrantzi handia izan duela. Nire ustez, egun horren aurreko eta ondorengo etapa banatu du.

Laguntzarik jaso al zen horren ondoren?

Laguntza materiala baino gehiago beharko litzateke psikologikoa. Izan ere, jende asko oso markatuta gelditu da. Laguntza gehiago izan da lagun artekoa. Laguntza materiala eman da baina gutxi eta gainera ez du asko laguntzen.

Zer ezberdintasun dago Paraguaiko eta hemengo bizitzaren artean?

Paraguain bizitza askoz lasaia da, han bero gehiago egiten du. Gainera, ezberdintasunak handiak dira. Paraguain gauez ez dago bizitzarik, pertsona helduak etxean gelditzen dira, han ez da poteorik existitzen. Kalea gehiago gazteentzat da. Baina, orain hori ere mugatua dago. Boterean eskuineko partidu bat dago, Colorado partidua, eta gaueko ordu bietan tabernak ixteko agindua eman zuen. Gainera, gaueko 10etatik aurrera ezin da alkoholdun edaririk zerbitzatu. Bestalde, han ez dago aisialdirako gauza askorik, zinea garestia da kobratzen den diruarentzako.

Nolakoa da han lan merkatua?

Langabezia izugarria da han eta gainera soldata oso baxua da. Era berean, bizi maila igotzen ari da eta egoera ez da oso ona. Guk esaten dugu dolarretan ordaintzen dugula eta guaranitan kobratzen dugula.

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

Ikasteknik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

**Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua**

• Test-ak, Frogak • Tailerrak

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

“Guarania ahoz aho pasatzen joan den hizkuntza bat da, ez da inoiz idazteko beharrik izan”

Paraguain guarani hitz egiten zenuen eta orain euskara ezagutu duzu. Antzekotasunik ba al dute?

Bai, badira hitz batzuk oso antzekoak direnak eta gainera esanahi berdina dutenak. Guarani hizkuntzan, taita hitzak aitona edo aita esan nahi du eta euskaraz aita esaten da. Badira beste hainbat hitz antzekoak direnak ere. Gainontzean, oso hizkuntza ezberdinak dira biak.

Euskara hemen ez da asko hitz egiten. Guarani gaztelera baino gehiago hitz egiten al da Paraguain?

Bai, guarani hizkuntza izugarri hitz egiten da han. Guarania ahoz aho pasatzen joan den hizkuntza bat da, ez da inoiz idazteko beharrik izan. Lehen gainera hizkuntza marjinatua ere bazen, izan ere, diktaduraren garaian debekatuta zegoen eskoletan guarani erakustea.

Orain eskoletan guaraniz erakusten al da?

Bai. Orain ama hizkuntzan erakusten da eskoletan. Duela hamabost bat urte gaztelerekin batera hizkuntza ofiziala bihurtu zen. Zer iritzi duzu hizkuntza



gutxituei buruz?

Nire ustez identitateari eusteko zati garrantzitsu bat da hizkuntza. Ez da kasualitatea herri bakoitzak bere hizkuntza edukitzea, hori da besteengatik ezberdin egiten duena. Eta ezberdintasunak errespetatu egin behar dira. Hizkuntza erres-

petatu egin behar da herriaren sustraia delako.

Gero artearen munduan lan egiteko asmoa al daukazu?

Une hori noiz iritsiko den itxaroten ari naiz. Hala ere, lehenengo lan bat aurkitu nahi nuen diru pixka bat izateko eta hemen nire le-

kua bilatzeko. Hala ere, kultura honetan indarra duen zerbaiti heldu eta hemen bizitzeko aukera ematea nahi nuen. Izan ere, nire ustez ezin da inora ezer gabe joan, zerbait eman behar da. Horregatik, nik euskara errespetatzen dut eta ikasten saiatuko naiz.

Hasi al zara euskara ikasten?

Ez, baina, dagoeneko euskara ikasteko izena emanda nago udaletxean eta taldea osatu arte itxaron beharra daukat. Hilabete bateko kurso intentsibo bat egingo dut.

Nire ustez identitateari eusteko zati garrantzitsu bat da hizkuntza

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain

Tfnoa 943 88 86 84



zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Esperientziaren eskola: 2005/2006 ikasturteko matrikulazioa

2004-2005 ikasturtea amaitu dute Esperientzia eskolako ikasleek. Agian ez dira termino egokiak, izan ere, hau ez da buruan izan dezakegun eskola baten antzekoa, ez horixe. Esan genezake esperientzia eta ezagutza banatzeko aukera bat dela, ez da inongo ezagutzarik behar, ezta idatzi edo irakurtzeko erraztasunik.

Klaseak astearte, asteazken eta ostegunetan izaten dira goizeko 10etatik 13era. Urrian hasi eta Maiatzean bukatzen da, baina esan behar da, ez dela inongo konpromezurik eskatzen eta bakoitzak dituen oporrak, edo eta egoera dela eta ezin duenean etorri ikasgaiak errekuuperatzen direla. Ikasgaiak bi taldetan banatzen dira alde batek ikuspegi orokorra duten gaiak, humanistiko ikuspegia (komunikaziorako erraztasunak, pertsonaren garapena, harreman sozialak eta inguruko euskarriak, filosofia...) eta bestalde zehatzagoak direnak edo zientifikoagoak (zientzia eta teknologia, ekonomia, sexualitatea...), guztiak egungo egoera ezagutzeko eta egokiago ulertzeko ematen dira. Gainera ikasturtean zehar hainbat bisita eta bazkari ere ospatzen dira. Garrantzitsua pertsona bere osotasunean janztea da.

Esan behar da aurtengo urtean ere talde ezin hobea izan dela eta urtero bezala beraien jarraitzeko desioa eta elkarrekin egoteko



nahia azaldu dutela. Lagun berriak egin dituzte eta batez ere eman diren saioak asko gustatu zaizkie. Nahiz eta datuetan ezin den errealitate guztia isladatu, esan genezake irakasleen maila baloratzean eta hauen ezagutza maila, orokorrean, 5etik puntuazio baxuena 4,5 izan dela.

Horregatik, 50 urte baino gehiago badituzu... "Gerturatu eta gozatu esperientzia honekin. Utzi zaitez txunditzen. Ez zaitez konformatu eta zure denbora libre aprobatxatu."

2005/2006 ikasturteari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, inolako konpromezurik gabe deitu 943 16 15 37 telefono zenbakira.

Jubilatuentzako VIII. ibilaldi neurtua Beasainen

Ekainaren 18an izango da Beasaingo jubilatuentzako VIII. ibilaldi neurtua. Irteera, Urbialde Plazatik goizeko 08:30ean izango da eta ibilbidea haxe izango da: Urbialde Plaza, Foru kalea, Errekarte, Kaminero-etxea, Poyam, Gudugarreta auzoa, Ondarre baserria, Arriarango Urtegia, Arriarango frontoia, Ondarre baserria, Gudugarreta auzoa, Loinazko Andre Mariaren ermita, Errekarteko bidegurutzea, Barrendain plaza, Gernika pasealekua, Erauskin plaza, Urbialde.

Bukatu eta gero, 2005. urteko mendi-irteeren probakira.

grama bukatzeko, erretiratu en etxean partaide guztientzako lunch-a izango dugu.

Parte hartu nahi duten guztiek, arratsalde, erretiratu en etxeko bulegoetan eman dezakete izena. Ekainaren 15a arte 17:00etatik 19:00etara. Partaide guztiek 3 euro ordaindu beharko dute.

Ibilaldi hau Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate sailak, Aitzgorri Mendizale Elkarte eta Goierriko Gurutze Gorriaren laguntzarekin antolatzen duen jubilatuentzako mendi irteera programaren barruan dago.



kutxa

gizarte ekintza

Ekainaren 3an zendu zen Ordizian 92 urte zituela Lutxi Zaldua euskaltzalea hil da

Ordizian jaiotako Lutxi Zaldua euskaltzalea hil zen iragan ekainaren 3an. 92 urte zituen Zalduak eta ezaguna zen oso bere herrian zein eskualdeko beste hainbat herritan. Izan ere, euskararen alde lan asko egiteaz gain, emagin eta praktikante lanetan aritu izan zen bere bizitza guztian zehar eta asko izan dira bere laguntza izan duten herritarrak.

1940. urtean Donostian ikasten aritu zen Zaldua bost urtez eta emagin eta erizain tituluak atera zituen. 1950ean ikasketa gehiago egin zituen eta praktikante eta podologo ikasi zuen.

Ordizian, Itsasondon, Baliarrainen, Legorretan, Altzagan, Araman, Lazkao, Zaldibian, Beasainen eta Idiazabalen aritzen zen emagin bezala lanean. Beraz, zaila da kontatzea Zalduak mundura ekarri zituen haur guztien kopurua. Baina ezagun da asko izan zirela, izugarri baitira berak mundura ekarri zuela aipatzen duten herritarrak. Herriz herri ibiltzeko, bizikleta izaten zuen lagun hasieran, lanbreta motoa ondoren, eta azken urteetan autoz ibiltzen zen. Berak esandakoaren arabera, lau auto izan zituen.

Euskara bihotzean

Emagin bezala egin zuen lan guztiaz gain, euskararen alde ere lan handia egin zuen Zalduak. Garai hartan herri txikietara joaten zenean euskaraz egiten zuela aitortu zuen eta bera euskaraz hitz egiten entzuten zutenean herritarrak asko lasaitzen zirela ere bai.

Euskalduna zela garbi

utzi nahi izan zuen 1993an egindako elkarrikketa batean: "Ni ez naiz ez espainola, ez eta frantsesa ere. Ni euskalduna naiz". Gainera, elkarrikketa horretan erronka bat ere botatu zuen Zalduak. "Euskara eraso handiak jasaten ari da, baina guk eutsi genion eta zuek ere egingo duzue", aipatu zuen.

Ordiziako Jakintza Ikastolaren sorreraren alde ere lan egin zuen Zalduak.

Argia saria

Asko gustatzen zitzaion irakurtzea Zalduari eta batez ere euskaraz. Baina garai haietan euskara debekatua zegoen. Mugaz gaindi, ordiziarrak Zeruko Argia aldizkariaren harpide egin



zen debekuaren gainetik eta hilabetero aldizkaria etxean jasotzen zuen.

1936ko gerra zibilaren aurretik ere irakurtzen zuen Zalduak aldizkaria eta honakoa nabarmendu

zuen: "Ez zen erraza, baina baserrian bizi ginenez, ganbaran izkutatzen nituen aldizkariak". Ausarta zen Zaldua eta hori erakutsi izan zuen bere bizitza guztian zehar.

Bokazioa zuen emakumea

Nahiz eta Lutxi Zalduak ikasketak zituen, bokazioa zen berak sentitzen zuena. Gogor egiten zuen lan beragatik eta ingurukoengatik. Horregatik nabaria zen ogibideaz gain, bokazioa zuela.

GOIERRITARRA aldizkariak bi elkarrikketa egin zizkion Zaldua ordiziarrari; bata 1993an eta bestean 2001ean. Hori dela eta, elkarrikketa horietan berak esandako kontu batzuk ekarriko ditugu gogora.

Erditzearen aurreko prestakuntza

Egun erditzeko dauden aurrerakuntzen alde agertu zen Zaldua, batez ere, erditzearen aurreko prestakuntzaz hitz egin zuen: "Maternidadean ikasten nengoenean, emakume asko ikusten nituen garraxi bizian; eskutik heldu eta ondoan jartzen nintzen arnasa noiz hartu behar zuten esanez eta segituan lasaitzen ziren. Prestakuntza faltagatik eta beldurragatik jartzen ziren borrela".

Gimnasiaren garrantzia

Bere ustez gimnasia egitea oso garrantzitsua zen. Zalduaren esanetan, lehengo emakume baserritarrek eta ijituek oso erraz izaten zituzten umeak, askotan etenik gabe. Hori dela eta, honako ondorioa atera

zuen Zalduak: "Egungo emakumeak kotxean joaten dira edonora, geiago ibili behar dira eta zigarroa utzi behar dute. Izugarria da gaurko neskek zenbat erretzen duten eta hori txarra da bai beraientzat eta baita umearentzat ere".

Epidurala

Egun asko dira anestesia epidurala hartzen dutenak. Anestesiaren antzekoa da baina ez da korderik galtzen. Epiduralarekin ez da inongo minik sentitzen, baina Zalduaren arabera, gauza polita da umea etortzen sentitzea: "Erditzea abal den naturalena izan behar da, umea ondo badator ez da inongo arazorik sortzen. Batzuk ez dute erresidentziara joan nahi izaten, ez da oso naturala. Behin aldizkari batean ikusi nuen emakume bat bere etxean erditzen famili osoa eta etxeko txakurra aurrean zituela. Eta zergatik ez?"

Abortoari buruz

Abortoaren ideia ez zuen asko atsegin. Bere ustez, kontuak aurretik atera behar dira eta gaur egungo metodoekin ez da zaila: "Horrela zetozenei esaten nien nik umeak jaiotzen laguntzeko ikasi nuela, ez biltzen laguntzeko. Gainera, nik ez dakit nola egiten den aborto bat".

Segura

Euskal Herriko dantza txapelketa

Ekainaren 19an, igandean, ospatuko da Euskal Herriko dantza txapelketaren 29. edizioa Seguran. Aurten goan 12 bikote izango dira txapelketa honetan lehiatuko direnak. Denak ere eskarmentu handiko bikoteak dira beraz ikuskizuna ziurra izango da.

Urtetik urtera garrantzi handia hartu du Seguran egiten den txapelketa honek. Asko dira bertara etortzen diren dantzariak. Fandangoa eta arin-arina dantzatu behar izaten dituzte eta noski, ahalik eta ondoren saria irabazteko. Baina, dantza epaitzeaz gain, jantzia ere epaitzen dute epamahaikideek.


Aurtengoan ere, gainerako urteetan bezala, ETBko kamarak joango dira txapelketa grabatzera arratsaldetan eta gauean emango dute telebistan txapelketan gertatutako guztia.

Beasain

UEUko ikastaroetarako diru-laguntzak

Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak, 2005eko udan XXXIII. UEUren edizioan izango diren ikastaroetarako nahiz orokorki Unibertsitate-mailako euskarazko ikastaroetarako, diru-laguntzak eskaintzen ditu ikasle beasaindarrentzat. Ikasleek ondorengo baldintzak bete behar dituzte: Beasainen erroldatuta egotea; batxilergoko 2. ikasturtea edo LH1-2 eginda izatea edo Unibertsitateko maila ertain edo goi-mailako ikasketak egiten aritzea (matrikularen kopia bat ekarri behar da); eskaerak uztailearen 11ra bitartean egin behar dira; eta irabazpidezko diru-sarrerak dituztenek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Eskaera egiterako orduan, ikastaroko matrikularen fotokopia, NANaren fotokopia, kontu korrontearen zenbakia (20 zifrak), udaletxeko eskaera-orria beteta, eta egiten ari den ikasketen matrikularen fotokopia ekarri behar dira.



Luis Quilez ordiziarraren oroimenez rakusketa dago Barrena Kultur Etxean.

Ordizia

Erakusketa aukera

Barrena Kultur Etxea

Luis Quilezen 'In memoriam' erakusketa:

Ekainaren 24ra bitartean izango da Luis Quilezen oroimenez egindako erakusketa. Arratsaldetan 18:00etatik 20:00etara egongo da irekita.

Erakusketa honekin iaz hil zen Luis Quilez margolaria gogoratu nahi dute. Bertan, Quilezen lanak daude ikusgai eta baita berarekin harreman estua izan zuten adiskideenak ere. Hala nola, Jesus Gallegorenak, Miguel Angel Alvarezarenak, Julio Garcia Sanzenak, etab.

D'elikatuz elikadura eta gastronomia gunea

Elkartrukea eta elikadura

Arte Ederretako ikasle eta irakasle talde batek, herrialde desberdinetako bi unibertsitateetako kideek, elkartruke pedagogikoa eta elikadura beren oreka eta desorekekin landu dute hainbat lanetan. Obra horiek ezagutzeko aukera izango da uztailearen 3a arte Ordizian. Astelehenetik ostiralera 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara egongo da irekita. Asteburu eta jaiegunetan ere izango da bisitatzeeko aukera.

Z

Zunzunegi

0inetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



OVER Taldea




Zure bidai agentzia

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**

Tel./Faxa: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es

MUNDU BAT HAMAIKA LEKUR



18 bidaiak

txina
karibe
andaluzia
mallorca
kantabria

Ekainaren 19tik aurrera



族
遊
中
國

Kupoi guztiak bilduz gero,
autorako eguzkitakoa
jasoko duzu opari.



berria

Laguntzailea:

EROSKI bidaiak
merezi duzu

Euskaldunok behar dugun

berria

ETXEBIZITZAK

salgai

Zaldibian etxebizitza bat salgai dago. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongelarekin. Berritua. 156.260 euro. 669827096.

Ordizia erdi-erdian pisu bat salgai dago. Erabat berritua dago eta bi logela ditu. Pisu guztiak kanpoaldera ematen du. 619419811 / 656778222

errentan eman

Jakan apartamentua alokatzen da udan. Igerilekuarekin. 943216684-943885674.

Conilen (Cadizen) apartamentua alokatzen da. 659948773 (Rakel).

Zarautzen, (erdialdean) etxebizitza alokatzen da, ekainean eta uztailean. 4 logela, oso egoera onean. Hondartzatik 5 minutura. 943014155.

Saloun apartamentua alokatzen da. Uztaileko 2. hamabostaldia eta abuztuaren 1. hamabostaldia. 943027417.

Donostian Amara auzoan etxebizitza alokatzen da uztaile eta abuztuan. 2 logela terraza-rekin. 636399403.

GARAJEAK

salgai

Ordizia erdian garaje itxia saldu edo alokatu egiten da. 630608227.

errentan

Zaldibian garajea alokatzen da. 943162172.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

salgai

Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut Arkaka eta Intxautiko iturriaren arteko pistan. Balio pertsonal handikoak dira. 607585117.

BESTELAKOAK

salgai

Ura berotzeko berogailua salgai dago. 670422051.

Paretak egiteko blokeak sal-tzen dira. 646110706.

LC-3 macintosh (apple) orde-nagailua salgai, xaguarekin. 60 euro. Josu, 117 postakutxa, 20200 Beasain.

Bi walki-talkye ICOM (VHF) salgai; 150-160 Mhz, ruletazko-arekin eta 5W, kargadoreare-kin. 180 euro biak. Josu, 117 postakutxa, 20200, Beasain.

Ordenagailu portatil berria salgai. AMC-Atlon-XP. 627568311.

Teilaturako plastikozko 50 plaka salgai. 1,2 x 3,00 metro-takoak. 2 euro bakoitza. 656723131.

Fender Stratocaster gitarra mexikarra salai. Kolore natura-lekoa. 645713541.

Bikientzako Inglesina marka-ko kotxea salgai. Oso egoera onean. 699107910.

Mustek 600 II N eskaneagailua salgai. 50 euro. 652729563.

Margotzeko eskuko aire pis-tolatxoa (holding air brush kid) salgai. Behin erabilia. 20 euro. 652729563.

Esku-ohea eta lanpara in-fragorri salgai. Egoera oso onean eta prezioa ere bai. 610036043.

MUSIKARIAK

eskaerak

Dogma de fe Beasaingo rock taldea baxu-jole baten bila dabil. Konpromezurik ga-be deitu eta probatu. Kon-zertuak ditugu. 628 15 81 42 (JON)

Goierriko musika talde ba-tek baxu-jolea behar du. Erre-pertorioarekin. Lehenbait le-hen zuzenean jotzeko prest. 609214919 (Aitor).

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuartera
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

INFORMATIKA-GELA
✓ Ikastaro berriak:
• Mekanografia
• Word, acces, excel...
• Internet
• Ingelera

UDA IKASTAROAK
Uztaila eta abuztua
✓ Errekuperazioak
✓ Udako lanak
✓ Datorren ikasturterako prestaketa
✓ Ingelera
✓ Tailerrak: ikasketa teknikak, irakurmena/idazmena, matematika/kalkulua

ESKOLA LAGUNTZA
✓ Azken azterketak
✓ Maila guztiak: LH, DBH, batxilergoa, unibertsitate-maila, moduloak...
✓ Talde txikiak eta arreta pertsonalizatua

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

AMEBI



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



Cebanc-Cdea
FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA
Berio Pasealekua, 50 • 20.018 Donostia

Lanerako prest?



Profesionalak hezituz

OSTALARITZA ETA TURISMOA	INFORMATIKA
■ Jatekxoa arloa. ■ Sukalderitza. ■ Gozogintza eta okingintza. ■ Jatekxoa eta tabernako zerbitzuak. ■ Sukalde-laguntzailea, I. maila. ■ Ostalua arloa. ■ Bidaia agentziak. ■ Turismo-informazio eta merkataritza.	■ Informatika-sistemen administrazioa (A eta D). ■ Informatika-aplikazioen garapena (A eta D). ■ Sistema informatikoen ustiaketa.
MERKATARITZA ETA MARKETINA	ADMINISTRAZIOA
■ Nazioarteko merkataritza. ■ Merkataritza-kudeaketa eta marketina. ■ Merkataritza.	■ Administrazioa eta finantzak (A eta D). ■ Administrazio-kudeaketa. ■ Idazkaritza. ■ Bulego-laguntzailea, I. maila.

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MATRIKULA ZAITEZ!
☎ 943 316 900

IBILGAILUAK

salgai

Golf 4. seriekoa salgai. 115 zaldi, 1.9 TDI. Sei martxa. 2001. urtekoa. Oso egoera onean. 665704234.

Seat Ibiza 1.9 diesela salgai. Gris metalizatua. 6 urte, 70000 km. Irrati-CDa, 5 ate, egoera onean. 687413379.

Scoda Octavia salgai. SS-BD matrikuladuna. Aire egokitua. "Manos libres" instalazioa. Oso egoera onean. 656794350.

Citroen C-15 furgoneta salgai. Lo egiteko prestatuta. SS-AT matrikuladuna. Oso egoera onean. 685720279.

Yamaha Facer 600 salgai. 1998. urtekoa, SB-BD matrikuladuna eta 50000 km dituen. Beltza. 943670609.

Opel Corsa autoa salgai. NA-AZ matrikuladuna. Oso egoera onean. 677851566.

Kia Sportage 4x4 autoa salgai. SS-BG matrikuladuna. 95000 km. 645713541.

WW California salgai. 102 CV, 2.5 TDI. Aire egokitua, 150000 km. Lotarako 4 plaza, sukaldea, frigorifikoa, Nafarroako matrikula. Oso egoera onean. Extra pila bat. 678342873.

Opel corsa 1.4 salgai. SS-AP matrikuladuna. Oso egoera onean. Prezio interesgarria. 605733843.

Seat Leon FR. 1.9TDI 150 zaldi. 33.000 km. 2004. urtekoa. ESP. Alarma. 6CD. Garantia ofiziala. 636211578 (Leire).

ANIMALIAK

salgai

Brie arrazako artzain txakurkumeak salgai. Pedigreedunak. 636979154.

Poni emea salgai, urte betekoa. Hilabete eta erdiko poni arra ere bai. 630035317.

Jadterrier alemaniar arrazako txakurkumeak salgai (basurdeetarako, azerietarako...). Hiru hilabetekoak. 943801806.

erosi

Artzai txakurra, iletsua hartuko edo erosiko nuke. 679865826.

LANA

eskaerak

Emakumea behar da goizez haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko, irailatik aurrera. 943028577.

Beasainen etxeko lanak egin eta adineko pertsona bat zaintzeko norbait behar da. 943885135.

21 urteko neska langilea, uztailean edozein jaietan lan egiteko eskaintzen da. Tabernan, jatetxean edota beste zerbairetan, arazorik gabe. Saioa. 665702296.

Zerbitzaria behar da tabernan lan egiteko. 629160500 / 627122097.

Emakume bat behar da Beasainen etxeko lanak egiten laguntzeko eta zazpi urteko haur bat zaintzeko. 943881302.

Pintorea behar da makina-erremintarako. Esperientziaduna. 615787097.

Zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean lan egiteko. Kontratuarekin. 685782717.

Neska edo emakume bat behar da haur bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 20:00etatik aurrera deitu zenbaki honetara: 943028855.

eskaintzak

Neska euskaldunak Ordizian klase partikularrak ematen ditu ekaina eta uztailean. Goizez eta arratsalde, DBH 2 arteko maila guztiak. Talde txikitik edo banaka. Esperientziaduna. 607658507.

Adineko pertsonak gauez zaintzeko prest dago emakume bat. Esperientzia dauka. Papearak behar bezala dauka. 670376201.

Haur hezkuntza ikasten ari den neska bat haurrak zaintzeko prest dago. Interesatuak deitu 619860243 telefonora.

Ordiziako emakumea eskaintzen da orduka bi egunez etxeko lanak egiteko. 943084046.



**TOLDOS OLANAK
AGUSTINI**

Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbaki: E-2644
RPS: 42001

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo

barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

Tel.:
943 887 048

Faxe:
943 882 801

Telleri z/g
ORMAIZTEGI



OSINALDE

KARROZERIA



Ordiziako Beti Argi Banda

Argazki honetan ikus daitezke Ordiziako Beti Argi bandako kideak. 1979an sortu zen Ordiziako musika banda hau eta 1980an jo zuten heraien lehenengo kontzertua. Hori dela, ez dakite argazki hau zehazki noizkoa den, sortu zen urtekoa edota aurreneko kontzertukoa.

HORTZ KLINIKA



CAMPAÑOLE Doktorea
Zirujau dentista

473 zki. kolegiatua

Odontologia, hortz zuriketa, estetika,
periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.



Hortz zuriketa
ordu betean

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A

BEASAIN

☎ 943 085 229

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr.

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.

R.P.S. 213/97

BEASAIN

GUKlan
BAINUKO OSAGIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA




mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Udako euskara ikastaroak

IKASTAROAK

ORDUAK

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra: 100 ordu maila guztiak

Irailaren 5etik 30era: 40 ordu EGA prestatzeko

Izen emateko epea: ekainaren 13tik 24ra



Beasaino
Udal Euskaltegia,
Loinazko San Martin Plaza,
BEASAIN
Tfnoa.: 943 028100
Zuzendaritza@beasain.net

Euskara ikastaroak 2005-2006

IKASTAROAK	ORDU KOPURUA	HASIERA-BUKAERA
Maila guztiak	130 h. 274 h 346 h	05/09/15-06/06/23
Mintzamena eta irakurzaletasuna lantzeko taldeak	130 h.	05/09/15-06/06/23
Azterketak prestatzeko: Osakidetza, Hezkuntza	130 h.	05/09/15-06/06/23
Etorkinentzako harrera ikastaroak	60 h.	05/10/3-05/12/19
Ostalarientzako ikastaroak	60 h.	05/10/3-05/12/19
Autoikaskuntza sistema, Tutorearekin	234 h.	05/09/15-06/06/23

Izena emateko epea: irailaren 23ra arte

- > Beka sistemak eta diru-laguntzak
- > Langabetuek %30eko beherapena matrikulatzera-koan
- > Izena emateko www.udaleuskaltegiak.net erabiliz gero, matrikula baten zozketan parte hartuko duzu

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...





Antzizar Kiroldogiko
Bazkide txartela baldin
baduzu, etorri eta Aristrain
Kiroldoguneko Igerilekua
sartzeko beharrezkoa den
pegatina emango dizugu



ANTZIZAR KIROLDEGIKO UDA 2005 KANPAINA

Etzara lehor geratuko!

Aurten ekainaren 15etik
aurrera Antzizar
Kiroldogiko bazkideek
ARISTRAIN KIROLDGUNEKO
IGERILEKUA erabilgarri.



www.antzizar.net

tel. 943 887900